


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 25a / 617. zenbakia



ELUR-DENBORA

Elurrak zuritu egin ditu auzo eta mendiak

KOLEKTorea: DENDARIAK HASERRE LANEKIN/6 • FUTBOLA: GAZTE MAILAKO TALDEA, IGOERA BIDEAN/8

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 25
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

ZAPATUA, 26
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87

DOMEKA, 27
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87

ASTELEHENA, 28
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05

MARTITZENA, 1
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63

EGUAZTENA, 2
MOZOS, Iparragirre 2 943 76 12 15

EGUENA, 3
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Anglozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegaraieta Domekak: 11:00. San Lorentzo Zapatuak: 20:00. Angiozar Domekak: 11:00. Moja Zaharrak Lanegunak: 08:00. Mizpirualde Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30. Antzuola Domekak: 10:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30. Uzarraga Domekak: 10:00. Elgeta Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30. Domekak: 12:00.
Santa Marina Zapatuak: 19:00. Domekak: 13:00.	Sierbak Lanegunak: 19:30 Osintxu Domekak: 12:00. Elosu Domekak: 11:00. Ubera Domekak: 10:30. San Juan Domekak: 11:00. Elorregi Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK
Santa Marina
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.
San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

1979AN JAIOTAKOAK
1979an jaiotakoen bazkaria martxoaren 19an, Txarran-txa jatetxean. Izenematea (30 euro) Kutxan irekitako kontuan, otsailaren 24ra arte. Bazkari egunean 11:00etan elkartuko dira, San Martin plazan.

SAGARPE ELKARTEKO BATZARRA
Sagarpe elkarteko bazkide-ek urteko batzarra egingo dute martxoaren 11n; lehen deialdia 19:00etan izango da eta bigarrena, 19:30ean.

ETXERAT-EN ESKERRONA
Bergarako preso eta errefuxiatuen familiarrek eskerrak eman nahi dizkiete Gabonetan laguntza eman zuten herritar guztiei.

ODOL ATERATZEA
Odol ateratzea egingo dute eguaztenean, martxoaren 2an, Seminarioko lokalean, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

TXAPLIGU TALDEA
Bihar, zapatua, eskulanak Arrizuriagan, 16:00etan. Domekan, berriz, *altxorren bila* jardungo dute. Bestalde, Gasteizera patinatzerara irteera martxoaren 5era atzeratu dute.

TXORIMALO LEHIAKETA
Txorimalo Lehiaketa izango da Erramu Zapatuan, martxoaren 19an. Partaideen adinaren arabera, hiru talde bereiztuko dituzte eta onenendako sariak egongo dira. Izena emateko epea martxoaren 11ra arte izango da zabalik. Argibideak: 943 76 08 19.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERGARAN

Maltzaga-Urbina: aurre-proiektua Bergaran

1995eko otsailean Maltzaga-Urbina aurreproiektuaren erakusketa jarri zuten Beheko Estazioan, karpa erraldoi baten. Gipuzkoako eta Arabako diputazioek eta Jaurlaritzak elkarlanean jarri zuten erakusketa, autobidearen nondik norakoak azaltzeko. Herritar ugari hurbildu zen erakusketara.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Perratzaille"



— Osintxuko perratzailiakin egon naiz. JON IRAEGI

ASTEKOPELIKULAK

'WHISKY'

ZUZENDARIA: JUAN PABLO REBELLA, PABLO STOLL. **AKTOREAK:** ANDRES PAZOS, MIRELLA PASCUAL.

HARIA. Jacobo, Marta eta Hermanek hiruko bitxia osatzen dute euren isilune, sentimendu gorde eta umore-sen ezkutuarekin...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna). 94 minutu.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

FRONTOI

TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

HAUGIROA!

MINIMOA
Martitzena, 22 **0 °C**

MAXIMOA
Zapatua, 19 **8 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **73,1 l**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 16	4 °C	2 °C	9,3 l/m ²
Eguena, 17	2 °C	1 °C	0,5 l/m ²
Egubakoitza, 18	5 °C	0 °C	4,1 l/m ²
Zapatua, 19	8 °C	3 °C	22,3 l/m ²
Domeka, 20	7 °C	5 °C	22,8 l/m ²
Astelehena, 21	4 °C	0 °C	12,3 l/m ²
Martitzena, 22	3 °C	0 °C	1,8 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak



'SOLO UN BESO'

ZUZENDARIA: KEN LOACH. **AKTOREAK/ATA:** YAKUB, EVA BIRTHISTLE, AHMED RIAZ, SHAMAHAD AKHATAR.

HARIA. Casim jatorri musulman duen gazte eskoziarra duen Disc-jockey egiten du lan, lagun-minarekin klub bat zabaltzearekin egiten du amets... Jamin lehengusinarekin ezkontzear dago Casim...

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, martxoaren 3an, 20:00etan. Zinekin beko emanaldia. 108 minutu.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

ATREBENTZIAEZPADA/ Tranbiaren gaineko erakusketa ipini dute. Beharrezkoa da tranbia?



LUCAS DIEZ



SILVIA ZUBIZARRETA



KARLOS ALDAI



MARI JOSE APALATEGI



MELTXOR MARKIEGI



CLARA CABO

Tranbiarena ideia ona iruditzen zait, eta ibarreko komunikazioa hobetzeko beharrezkoa da, gainera. Hala ere, denbora luzea beharko da egiten. Nahiko nuke nik tranbia ezagutzea Bergaran.

Bai, aurrerapen guztiak dira onak. Nik ez dakit askorik erabiliko dudana, autoa badut eta, baina noizean behin probatzeko bada ere joango naiz. Hala ere, esan dute denbora luzea beharko dela Eskoriatzara joateko.

Tranbia beharrezkoa izango litzateke, baina beste proiektu batzuk baino lehen egingo balitz. Esaterako, Lastertasun Handiko Trenaren eta autobidaren aurretik. Bestela denak pilatzen dira.

Askotan horrelako obren aurka azaldu izan gara, baina beharbada ez da horren txarra ere. Hala ere, garraio publikoa erabili behar dela esan arren, autoa praktikagoa da, eta tranbia ipini arren ez dugu autoa utziko.

Bai, horrela jendea autoan gutxiago ibiliko litzateke. Nire kasuan, hala ere, antzera izango da, Ubera ez baitago tranbiaren ibilbidean. Dena den, herritarrendako aukera egokia iruditzen zait tranbia.

Bai; izan ere, autobus zerbitzua ez da oso egokia bailarako herrien artean. Gainera, jendeak gutxiago erabiliko du autoa. Ezagutzen ditut Eibar eta Deba artean tren asko erabiltzen dutenak autoa edukita.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK KOLEKTOREKO LANAK Herritar batek baino gehiagok deitu digu esanez, kolektoreko obrak direla eta herria oso zikin dagoela. "Elurra eta euria egin duen egun hauetan lokatza baino ez da sortzen, eta ia ezinezkoa da Ibargarai ingurutik pasatzea autoren batek zipritindu gabe", esan digu eurretako batek. Lanak egitea beharrezkoa bada ere, ingurua txukunago lagatzeko eskatu dute. //A.

ETABARRUAN...

ASTEKO /5

Tranbiaren proiektua

Tranbiaren proiektuaren gaineko erakusketa ikusgai dago osoko bilkuren aretoan.

KIROLA /9

Saskibaloia partiduak

Senior mailako taldeak eta kadete mailako neskek ere etxean jokatu dute aste bukaeran.

KULTURA /11

'Bergara Dantzara'

Xamatx, Moises Azpiazu eta Abarka dantza taldeek *Bergara Dantzara* egitasmoa abiatu dute.

ASTEKODATUA

36,9

EUSKARA ERABILTZEN DUEN HERRITARREN PORTZENTAJEA

Sei kultur elkarteak 2004ko azaroan egindako ikerketaren emaitzak kaleratu ditu Bergarako Udalak. Horren arabera, euskararen erabilera kalean %36,9koa da herrian.

BESTEKEESANA

Grabazioan zenbat eta gehiago aurreztu, hobe, hemen ez baitago Hollywoodeko produkzioen pareko dirutza. Gu ijitoen moduan ibili ginen. Zazpi astetan zehar, Bergaran kanpoko eszenak eta Pasaian barrukoak filmatu genituen pasa den udan. Furgonetetan eta autoetan traste andanarekin ibili ginen alde batetik bestera eta catering zerbitzuak prestatutakoa elkarte batean bazkaltzen genuen. Afaltzera eta lo egitera, berriz, bakoitza bere etxera joan ohi zen, ekoizpen etxetik Donostia inguruko langileak hartzen saiatu baitziren. Ez genuen roulotterik eta hotelik izan. baina horien beharrik ere ez. Aurrekontu baxuko filma eta gainera lehenengoa izateko, oso baldintza onetan aritu gara."
ASIER ALTUNA ETA TELMO ESNAL / Aupa Etxebeste! filmeko zuzendariak 'Argia'/05-02-20

BERAIEKIDINE/ Lander Juaristi



Zilan

Gaur emakume izen bat deskubritu dut; Zilan. Irakurtzen dihardudan liburuko 32. orrian gelditu naiz bost bat minutuz, Zilan izeneko emakume kurdua imajinatzen, gaztea, indartsua, polita...

Zilan, bailara baten izena ere ba omen da, pasa den mendeko 30. hamarkadan bertan akabatu zituzten turkiarrek kurdu mordo bat. Sufrimendua, odola, eta traizioa izen polit baten atzean, herri oso baten historiaren atzean esango nuke.

Herri kurdua; estaturik gabeko munduko herririk handiena, noizean behin gure telebistetako albistegietan azaltzen zaigun herria, gehienetan sufrimendurekin, borrokarekin edo injustiarekin lotutako albisteetan kamuflatua. Irakeko antzezlan makabroan presentzia interesatua izan duen herria (Irak, Iran eta Turkiako estatuetan zabaltzen dira Kurdistan ezinezko baten herritar gehienak).

Bagara estaturik gabeko herriak, kulturak, hizkuntzak... gure izaera propioarekin mundura zabalik egon nahi dugun herri eta pertsonak.

Baina hitz polit askoz osatutako diskurtsoekin gozatuta, ba al dakigu zer ari garen eraikitzen, herri eta

"Hitz polit askoz osatutako diskurtsoekin gozatuta ba al dakigu zer ari garen eraikitzen?"

pertsonentzako etorkizuna edo diruarentzako etorkizuna, Estatu Batuekin lehiatu ahal izateko etorkizuna?

Pasa den igandean Bergarak ezetz esan zion herririk ikusten ez duen Europari,

euskara ikusten ez duen Europari, diruan eta ez pertsonetan oinarritutako Europari, jada egungo jauntxo potoloek erabakita daukaten Europa eredu neoliberalari.

Polita da Zilan izena, izen kurdua izanik politagoa gainera, herri baten, kultura baten, borroka baten isla delako. Munduan, Europan, edo Bergaran ere badira Zilan izena eduki ez arren Zilan diren asko.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Maria Agirre
Iratzi Agirreazaldegia
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala



Joan den azaroan kalean jasotako datuak izan dira txostenaren oinarria.

HIZKUNTZA/ Atzo eman zituzten jakitera euskararen erabileraren gaineko datuak

Herritarren %36,9k hitz egiten dute euskaraz kalean

EDU MENDIBIL


Bergarako euskararen kale erabileraren neurketa txostena eman zuten jakitera atzo, eguena. Sei kultur elkarteak 2004ko azaroan egindako neurketa da atzo zabaldua. Euskararen kaleko erabilerak %36,9 da Bergaran.

4.215 laguni egindako bost neurketatan dute oinarria aipatutako datuok. Jasotako emaitzen arabera, euskararen kalera erabile-

ra %36,9 da Bergaran eta ezagutza, berriz, %70.

2003. URTEAREKIKO ERABILERA JAITSI Erabilera jaitsi egin da 5,5 puntu 2003ko erabilera mailaren aldean, eta berriro 2002ko erabilera mailaren parera etorri da, hain zuzen ere. Txostenean jasotzen denez, Bergarako euskararen erabilera batez bestekoa %35-40 inguruan kokatzen da 1983tik 2004ra bitarteko neurketetan. Tarte horretan, 1991n eta 2000n jaso zen erabilera mailarik altuena.

Hiru zonatan banatuta egin dituzte neurketak. Usondon jaso da erabilerarik altuena (%39,9), Bidekurutzetan %36,5 izan da eta Zubiaurre-San Antonio-Labegarietan jaso dute mailarik baxuena (%29,7). Adin taldeka begiratuta, 2-14 urte bitarteko haurrek erabiltzen dute gehien euskara (%61,8) eta adinean aurrera joan ahala euskara gutxiago hitz egiten da. Bestalde, emakumeek zazpi puntuko aldea ateratzen diote gizonei euskaraz berba egiteko orduan.



Miguel Larrañagaren lana aitortu du Merkataritza Ganberak

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Miguel Larrañaga gozogilearen lana aitortu du. 50 urtetik gora egin ditu Miguelek gozogile lanetan; bere aitajaunak, Manuel Larrañagak, justu orain dela 100 urte hartu zuen negozioaren ardura eta dagoeneko laugarren belaunaldia ari da gozotegian lanean, Agustinek aitari hartu dio-eta errelebu. Joan den egubakoitzean diploma eman zion Merkataritza Ganberak Miguel Larrañagari, urtetan erakutsitako maisutasunagatik. Zorionak!!!

Kalerik ezean, mendi eta auzoak zuritu ditu elurrak

E.M.

Elurra izan dugu aste honetako protagonista. Bergarako kaleetan ez bada elur askorik izan, inguruko mendiak erabat zurituta agertu dira egunotan. Narbaiza-Bolu baserriko Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera, temperatura ez dira hotzeak izan egunotan: "Saso honetan ez da harritzekoa horrelako tenperaturak izatea. Termometroak ez du zero gradutik behe-

rako tenperaturik izan, eta ostiralean, astelehenean eta martitzenean izan genituen tenperatura baxuenak, zero gradurekin. 1956ko otsaila askoz ere gogorragoa izan zen: elurra eta izotza izan zen orduan ia hila-bete osoan".

Herrian elurrak aparteko eragozpenik sortu ez badu ere, udal langileek zortzi tona gatz inguru banatu dituzte kaleetan eta auzoetan, ibilgailuen eta oinezkoen istripuak saihesteko asmoz.



Irudian, Elorriaga baserria, Goralara bidean.

LABUR

Korrikaren 14. ekitaldirako kilometroak eta laguntzaile txartelak salgai jarri dituzte

Korrika Batzordea dagoeneko hasi da aurtengo edizioarako kilometroak saltzen. Interesatutako enpresa eta elkarteek 943 77 03 68 telefonora jo dezakete. Kilometro bakoitza 320 eurotan jarri dute salgai. Korrikaren 14. ekitaldia martxoaren 10ean abiatuko da eta martxoaren 16an igaroko da Debagoienetik. Bestalde, Korrika Laguntzaile txartelak 12 euroren truke eskura daitezke Pol-Polen edo Jardunen, Errotalde jauregian. Euskal Herriko hainbat komertzioarako deskontuak eskaintzen ditu txartelak.

Langabeei zuzendutako makina-erreminta ikastaroa apirilaren 4an hasita

Udalaren Enplegu Zerbitzuak langabetuei zuzendutako makina-erreminta operadore ikastaroa antolatu du. Ikastaroa Miguel Altuna ikastetxean izango da, apirilaren 4tik uztailaren 12ra bitartean, aste barruan 14:30etik 19:30era. 309 orduko ikastaroa izango da eta helburua zera da: elektrizitate industrial arloan lanpostu bat lortzen laguntzeko prestakuntza ematea.

Izena emateko epea martxoaren 18ra arte zabalik, Udaleko Enplegu Zerbitzuan, 943 77 91 24 telefono zenbakian.

EHNA tramitatzeko aukera izango da bihar, zapatua, Irizar jauregian, goizez

Bergarako Bai Euskal Herriari taldeak jakitera eman duenez, nahi duten herritarrek EHNA agiria egiteko aukera izango dute bihar, zapatua, Irizar jauregiko sarreran, 11:30etik 13:30era. EHNA egin ahal izateko, hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro beharrezkoak dira. Tramitazioa egin eta handi aste batzuetara jasoko dute EHNA nahi duten herritarrek.

Dagoeneko 800 herritar baino gehiagok tramitatu du Euskal Herriartasun Nazio Aitormena, Bai Euskal Herriari taldeak emandako datuen arabera.

GARRAIOAK/ Amann sailburuak baieztatu duenez, alegazioak aurkeztu ahal izateko epea luzatu egin dute

Tranbiaren proiektuaren gaineko erakusketa, apirilaren 15era arte

E.M.

Alvaro Amann Garraio eta Herrilaneako sailburuak eta Victoriano Gallastegi alkateak tranbiaren proiektuaren gaineko erakusketa ireki zuten egubakoitzean. Amann sailburuak esan zuenez, alegazioak aurkeztu ahal izateko epea luzatu egingo dute.

Hasiera baten, alegazioak egiteko epea otsailaren 15ean bukatzen zen. Hala ere, Amannek adierazitakoaren arabera, eta herritarren eskariari erantzunez, epea luzatu egingo dute: "Ez daukagu inolako eragozpenik epea beste bi hilabetez edo, beharrezkoa balitz, denbora gehiagoz luzatzeko".

Osoko bilkuren aretoan jarritako erakusketa apirilaren 15era arte izango da zabalik. Bertan

proiektuaren nondik norakoak ezagutzeko aukera dago. Jaurlaritzako iturrien arabera, Debagoieneko tranbiak 110 milioi euro inguruko aurrekontua izango luke eta lehen fasea Aretxabaleta eta Bergara artekoa izango da, 17,5 km-ko ibilbidearekin. Tranbiak 33,6 minutu beharko ditu tar- te hori egiteko.

Bergaran sei geltoki aurrerikusten dira: Amillagan, Matxiategin, Usondon, Ibargarain, Torrekuan eta Zubiaurren. Erakusketan, geltokien panelak, Elore- giko tartearena eta ibilbide orokorrenak ikusgai daude. Oraindik ez dute zehaztu lanak noiz hasiko dituzten.

Erakusketa aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik osoko bilkuren aretoan. Zapatuetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara.



Victoriano Gallastegi alkateak eta Alvaro Amann sailburuak ireki zuten erakusketa.

LABUR

Posta bidezko botoa tramitatzeko aukera Batzokian

Bergarako EAJk jakitera eman duenez, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan botoa posta bidez eman nahi duten alderdi kideek Batzokira jo dezakete, aste barruan 12:00etatik 13:00etara eta 19:30etik 21:00etara. Argibideak 943 76 47 00 zenbakian.

Elikadura aztergai astelehenean Aranzadi Ikastolan

Aranzadi Ikastolak antolatuta, elikadura gaietan aditua den Mireia Alberdi bergararrak hitzaldia egingo du astelehenean, hilaren 28an, Matxiategiko eraikinean, 18:30ean. Hitzaldia, bereziki, DBHko 3. mailako gurasoei zuzenduta dago, ikasleei ikasi dutenari jarraipena eman nahirik.



Barraka eta txurroen postua Fraisko zurin

Joan den astetik umeendako barraka eta txurroen salmentarako postua jarri dituzte Fraisko zurin. Ez da sasoi honetako ohiko estampa, baina guraso askoren bilgune bilakatu da pilotalekuaren sarrera ondoan jarri duten barraka. Gurasoek ahal izan duten moduan egin behar izan diote aurre hotzari, haurrek barrakan gozaten zuten bitartean...

Santu Martirixen Eguna ospatuko dute datorren zapatuan Osintxun

E.M.

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Santu Martirixen Eguna ospatuko dute Osintxun hurrengo zapatuan, martxoaren 5ean. Txurumilo elkarteak hainbat ekitaldi prestatu ditu egun horretarako.

Santu Martirixen Eguneko ospakizunen barruan, goizean baserriarren produktuen feria izango da Osintxuko plazan. Era berean, talogileak ere egongo dira eta giroa alaitzeko asmoz trikitilariak eta dantzariak arituko dira.

Goenatxo harrijasotzaileak saioa egingo du eguerdi partean eta hainbat auzotarrek belar- meta egiten jardungo dute, garai bateko baserriko lana erakusteko asmoz.



Goizean zehar baserriarren produktuen feria izango da Osintxun.

BERTSO AFARIA GAUEAN

Gauean bertso afaria izango da Txuringo jatetxean. Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertso-

lari ezagunak izango dira bertan. Txartelak Txuringon edota Euskalduna tabernan eskura daitezke, 25 euroren truke.

SANTOS



Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10



Akats baten zuzenketa

- Intereseko telefonoak 5. orrian

Ospital eta anbulatoriak

Bergarako anbulatorioa ... 943 03 54 00

HIRIGINTZA/ Udalak agindutako epeak ez direla betetzen eta lanok galera ekonomikoak ekarri dituztela salatzen dute dendariak

Bedelkar herriko dendarien elkarteak kexu da ur kolektoreko lanak direla eta

EDU MENDIBIL

Bedelkar herriko dendarien elkarteak haserrea azaldu du herrian egiten ari diren ur kolektoreko lanengatik. Dendarien arabera, ez dira Udalak agindutako epeak betetzen ari, eta lanok komertzioetara galera ekonomikoak ekarri dituzte.

Bedelkarko ordezkarien ustetan, Udalak ur kolektoreko lanen epeen kontrola egin beharko luke: "Udalaren betebeharra hori da, herriko kaleetan egiten ari diren lanen jarraipena eta kontrola egitea, kaleak Udalarenak direlako eta kaltetuak herritarrak garelako. Hirigintza Departamentuak jarraipen hori egiteko sistema bat ezarri izan balu, lanean ari diren enpresek epeak beteko lituzkete. Inoiz ez dugu lanen kontrako iritzirik azaldu, guztion onerako lanak direla badakigulako. Zera

eskatzen dugu bakarrik: epeak betetzea eta herritarroi informazioa helaraztea". Epeak ez direla betetzen frogatzeko, Masterekako kasua azpimarratzen dute dendariak: "Hasiara baten bi hilabeteko lanak zirela agindu zuten; hirugarren hilabetea pasa da eta laugarren bat ere etorriko da martxa honetan. Ez dugu Udaleko teknikaririk ikusi lanen jarraipena egiten. Lanak oso erritmo geldoan doaz eta Udalak hor presio lana egin beharko luke, epeak betetzen direla ziurtatuz".

GALERA EKONOMIKOAK

Ur kolektoreko lanek dendariengan galera ekonomikoak eragin dituzte, Bedelkarrek salatu duenez: "Gure sektorean eragin zuzena izan dute ur kolektoreko lanek, eta utzikeriagatik izan da hori, Udalak hartu beharreko neurriak hartu ez dituelako, hain zuzen ere".



Ur kolektoreko lanak agindutakoa baino gehiago luzatzen ari direla salatu du Bedelkarrek.

Abstentzioa nagusitu zen Europako Konstituzioaren erreferendumean


E.M.

Europako Konstituzioaren gaineko erreferendumean, abstentzioa izan zen nagusi Bergaran: %63,1. Botoa eman zutenen artean, 2.510 lagun Itunaren kontra azaldu ziren eta baiezko botoak, berriz, 1.959 izan ziren.

Bergarako Udalak emandako datuen arabera, herritarren gehiengoak ez zuen botoa eman domekako erreferendumean. Hain zuzen ere, 7.886 herritar izan ziren bozketari uko egin ziotenak.

EZEZKO BOTO GEHIAGO

Debagoienean bezala, Bergaran ere ezezko botoak baiezkoak baino gehiago izan ziren: 2.510 herri-



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Egun lasaia izan zuten domekan hauteslekuetan.

tar Europako Itunaren aurka azaldu ziren eta 1.959 lagunek aldeko botoa eman zuten. Domekan 105 boto zuri jaso zituzten

Bergarako hauteslekuetan. Egun lasaia izan zuten domekan mahaietan lan egin behar izan zuten herritarrek.

LABUR

Orkestrak eta Bandak 2.000 euro batu zituzten Asiako itsasikarak kaltetutakoen alde

Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak 2.030 euro batu zituzten joan den otsailaren 4an eskainitako Aratusteetako konzertuan. 413 ikusle izan ziren emanaldian. Jasotako dirua Asiako itsasikarak kaltetutakoei bideratuko dute.

Langileei zuzendutako ikastaroak Miguel Altunan martxoaren erdialdean hasita

Miguel Altuna ikastetxeak langileei zuzendutako ikastaroak eskainiko ditu: CNC fresagailuko programatzailea, CNC fresagailuaren prestaketa eta programazioa eta CAM Unigraphic ikastaro emango dira martxoaren erdialdetik aurrera.

Doaneko ardo dastatze ikastaroa izango da kultur etxean datorren martxoaren 18an

Bergarako Kultur Zerbitzuak ardo dastatze ikastaroa iragarri du datorren martxoaren 18rako. Kultur etxean izango da saioa 19:00etan. Izenematea doanekoa da eta interesatuek kultu etxera edota 943 77 91 59 telefonora jo dezakete izena emateko. Plaza mugatuak izango dira.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerrak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

MINGAINARITIRAKA



Jose Angel Roige

Udaltzaina

Duela 20 urte udaltzain lanetan ari da Jose Angel Roige. Lana gogoko duela esan digu. Aste honetan jai izan duela aprobetxatuta, sakonago ezagutzeko galdera sorta egin diogu. Lasai erantzun ditu guztiak ere.

Elurtea izan dugu berriro. Gustuko duzu elurra?

Bergaran aldapa asko dago, eta arazo ugari eragiten du. Baina jolas egiteko gustuko dut.

Astean jai izan duzu. Zer egin duzu?

Goizean etxeko lanak egin, eta arratsaldean kalean ibili.

Etxeko lanak aipatu dituzu. Gogoko dituzu?

Harrikoa egitea ez zait batere gustatzen. Bazkaria prestatzea gustatzen zait gehien.

Udaltzain lana gogorra da?

Jaiak direnean, bai. Goizean goiz jende asko egoten da kalean, eta gazteek beti esaten digute zerbait.

Bergararrek errespetua diete udaltzainei?

Bai. Bergara herri txikia da eta denok ezagutzen dugu elkar.

Zure lanetik zer duzu gogokoen?

Jendeari laguntzea. Etxean giltza utzi badute, esaterako.

Hogei urtez udaltzain. Une gogorrek gogoratuko dituzu.

Behin, uholdeekin, San Antonion emakume bat etxetik erreskatatu behar izan genuen. Ez zen momentu ona izan.

Umetan, zer izan gura zenuen?

Mekanika nuen gustuko.

Bergarari zer falta zaio?

Erdialdea oinezkoendako izatea.

Noizbait isunik jarri dizute?

Bai, iaz, Ciudad Realen. Abiaduragatik jarri zidaten.

Sagardotegira joateko asmorik?

Aurten bi aldiz izan naiz. Oso gustuko dut sagardotegietako giroa, eta gehiagotan joateko asmoa dut.

Realaren egoerak kezkatzen zaitu?

Athletic-zalea naiz, baina Realaren kontra, inoiz.

Zenbat orduz egiten duzu lo?

Zazpi bat orduz. Gaueko 12ak inguruan joaten naiz ohera.

Zure ametsetako bidaia, nora?

Thailandiara.

Musika talde gustukoenak?

Dire Straits eta Michael Jackson gustuko ditut.

MARIA AGIRRE

KANPOTARRAKBERGARAN

VERONICA VILLARROEL

22 URTE / TXILETARRA / URTARRILA EZKERO PRAKTIKAK EGITEN ARI DA ANDURI LANDETXEAN

“Txilen, berandu iristera ohituta gaude; hemen, berriz, puntualtasuna izugarria da”

MARIA AGIRRE

Lehenengo aldiz ikusi du elurra Veronica Villarroel txiletarrak. Urtarrilean iritsi zen Ubera auzoko Anduri landetxera praktikak egitera, eta ordutik hona makina bat bider egin du elurra. Gustuko duela esan digu, baina hasieran kosta egin zitzaion hemengo eguraldira moldatzea. Txilen eguraldi lehorragoa izaten dute, Euskal Herri hezearekin konparatuz gero.

Ubera auzora urtarrilean, baina Euskal Herrira irailaren amaieran iritsi zen. Nekazaritzaren inguruko ikasketak egin zituen Txilen, eta, beka bati esker, Zizurkilen, Fraisoro eskolan, landa-turismoaren gaineko ikastaroa egiten ari da. Hasieran, ikastaro teknikoak izan zuten, eta orain, praktikak egiten ari da Anduri landetxean. “Oso gustura nago, landa-turismoa izugarri gustatzen baitzait, eta, gainera, asko ari naiz ikasten”, esan digu txiletarrak.

TXILEN LANDETXEA IREKI NAHI DU

Hemen ikasitakoa Txilen praktikan jartzeko asmoa du. Illapel izeneko hirian bizi da Txilen, eta landa-turismoari dagokionez gutxi garatua badago ere, etxe bat erosi eta landa-turismoan lan egin nahi du. “Gainera, ni bizi naizen ingurua arkeologia aldetik garrantzitsua da, eta ibilbide bat antola daitekeela uste dut. Hala ere, sektore hori oso berria da, eta aitzindari izango naiz”.

Uberako landetxean denetarik egitea egokitzen zaiola adierazi digu: “Ohea txukun egiten ikasi dut, eta baita patata-tortilla egiten ere. Telefonoa ere hartzen dut, eta asko harritu egiten dira hemengo ez naizela jakiterakoa. Orain, gainera, Ubera auzoaren inguruko historia aztertzen ari naiz landetxerako liburuxka bat egiteko”. Bergaran pozik dago Veronica; gainera, ingurua izugarri gustatu zaio: “Donostialdea ezagutzen nuen, baina inguru

“Landetxe bat ireki nahi dut Txilen; horretarako, praktikak egiten ari naiz Uberan”

hau desberdina da, batez ere paisaia aldetik. Euskara ere askoz gehiago entzuten da”. Gustura, baina jakina, jaioterria faltan sumatzen du. “Bereziki familiaritatekoak; asko gara eta batera bizi gara guztiok. Baina hemen egun osoan lanpetuta nago, eta akordatzeko astirik ere ez dut”.

JAKIETARA OHITU BEHAR

Klimara ez ezik, jakietara ere ohitu behar izan du.

“Txilen, jakiak astunagoak dira, eta gainera, askoz gaziagoak. Gatz larregi botatzen diegu janei. Horregatik, hasieran hemengo jakiak gatzgabeak iruditzen zitzaizkidan. Baina uste dut horrela hobe izango dela nire osasunarentzat. Eta puntualtasunak ere atentzioa eman dio: “Jaioterrian, berandu iristera ohituta gaude. Beti berandu iristen gara. Hemen, berriz, puntualtasuna izugarria da, eta, jakina, horretara ohitu behar izan dut”.

Herrian egingo duen egonaldia bukatzeaz ezagutu dugu Veronica. Martxoaren lehenean Zumaiara joango da, bertako landetxe batean praktikekin jarraitzera. Eta bere ordez beste txiletar bat etorriko da Andurira. Hura ere ezagutu nahiko genuke sail honetan.



ZUHAIZTI
taberna

Eguneko menuak!

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22

Astelehenetik ostiralera eguneko menuak Zuhaitzin.
Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.



Jokatutako 22 partiduetatik bakarra galdu du Bergarak. Igoera bidean dira Lopez de Abetxuko eta Beristainen jokalariek.

FUTBOLA

Bergara-Burumendi, gazte mailako partidua zapatuan Ipintzan

Bergara lider da sailkapenean eta hamar puntuko aldea ateratzen dio Mutrikuko taldeari

EDU MENDIBIL

Bergara KEko lehen gazte mailako futbol taldeak Mutrikuko Burumendi taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, Ipintzan, 18:00etan. Bergararrak lider dira sailkapenean.

Mahoneroek Lezon irabazi zuten zapatuan. Allerru etxeko taldea 3-0 aurreratu zen markagailuan baina David Lopez de Abetxuko eta Jose Ramon Beristainen mutilek buelta eman zioten partiduari, 3-5 nagusituz. Ibai Igarza (2 gol), Iñaki Elkoro, Julen Hurtado eta Jokin Balzategi izan ziren gole-gileak. Esan bezala, Bergarak lider jarraitzen du. Jokatutako 22

partiduetatik bakarra galdu dute: 57 puntu dituzte eta beraien atzetik Orioko eta Burumendi dira sailkapenean, 47na punturekin. Mutrikuarrek 4-3 irabazi zioten azken jardunaldian Kostkas taldeari. Beraz, sailkapeneko goialdean diren bi taldeen arteko norgehiagoka ikusteko aukera izango dute bihar Ipintzara hurbiltzen diren zaleek. Etxeko taldean, Eloy Crespo eta Iker Orgaz aurrelariak lesionatuta egon dira azken asteotan; hala ere, Orgaz jokatzeke moduan izango da bihar.

LAU PARTIDU GEHIAGO IPINTZAN

Bigarren gazte mailako taldeak ere etxean jokatuko du. Juan Carlos Gomez de Segurak gidatutako taldeak Gure Txokoa hartuko

du bihar, zapatua, 16:00etan.

Goizean, berriz, bi partidua izango dira: futbol-8ko infantil mailako taldeak Zumaiakoren aurka jokatuko du, 10:30ean, eta bigarren kadete mailako taldeak Urki izango du aurrez aurre, 12:00etan. Domekan, partidua bakarra izango da: lehen infantil mailako taldeak Amara Berriren kontra jokatuko du, 11:30ean.

TALDE NAGUSIA, MUTRIKUN


Preferente mailako taldeak Mutrikun jokatuko du zapatuan. Ordiziaren aurka 0-3 galdu ondoren, eta liga amaitzeko 13 jardunaldi besterik geratzen ez direnean, egoera larrian da Bergara, sailkapeneko 18. tokian, 25 punturekin.

Eguraldia hobetzeko zain dago Udala Labegaraietako skate pista jartzeko

E.M.

Eguraldia hobetzeko zain dago Udala, kiroldegiko skate pistako lanei ekiteko. Hain zuzen ere, kiroldegiaren kanpoaldeko berdegunean jarriko dute patinean ibiltzeko pista. Lanak uste baino gehiago luzatzen ari dira, hasiera baten 2004 urtea amaitu baino lehen egin behar baitzuten skate pista.

Lanen aurrekontua 47.725 euro da eta lanak Donostiako Tip-Top enpresari adjudikatu dizkio Udalak. Skate pista gaztetxo eta gazteen aspaldiko eskera izan da.



Kiroldegiaren berdegunearen ondoan jarriko dute skate pista.

Bergara Igeri Elkartek emaitza onak lortu zituen Gipuzkoako Txapelketan

E.M.

Bergara Igeri Elkarteko gazte-txoeak parte hartu zuten aste bukaeran promesa eta junior mailetako Gipuzkoako Txapelketan. Amaia Anduezak zuzendutako igerilariak emaitza onak lortu zituzten Azpeitian.

Promesa mailan, Neritzel Albusua lehiatu zen Azpeitian jokatutako txapelketan: 400 m estiloetan lehen postua eskuratu zuen Albusua eta, horrez gain, 100 m bular estiloeko proban 4. tokian sailkatu zen eta 400 estilo libreko proban 7.a izan genuen.

Junior mailan, berriz, Ana Balentziaga 4. postuan sailkatu zen 100 estilo libreko proban, eta 200 eta 50 m-ko distantzian, berriz,

seigarrena eta zazpigarrena izan zen, hurrenez hurren. Elisa Kortabarria, berriz, 20. postuan sailkatu zen 50 eta 100 estilo libreko probetan. Mutilei dagokienez, Nielka Ibaguren bigarrena izan zen 50 eta 200 m bular estiloeko probetan eta 100 m-koan hirugarren postua eskuratu zuen; eta Mikel Labaka 100 m estiloetan bigarrena izan zen eta tximeleta estiloeko 100 m-ko proban, zortzigarrena.

ASTE BUKAERAN, ZARAUTZEN

Aste bukaera honetan junior mailako Euskadiko Txapelketa jokatuko da Zarautzen eta han izango dira Nielka Ibaguren, Mikel Labaka eta Ana Balentziaga. Bergara Igeri Elkarteko ordezkariak badute aukera onenen artean egoteko.



Nielka Ibaguren, eskuman, 50 m bular estiloeko proban.

FOTOKIROLA



Gaztetxoak ere Kopa barik Zaragozatic

Talde nagusia moduan, infantil mailako Tau taldeak ez zuen Kopa ekartzerik izan Zaragozatic. David Urbina bergararrak zuzendutako taldeak Real Madril, Pamesa eta Gran Canaria taldeen aurka neurtu zituen indarrak eta hiruretan galtzaile atera ziren gasteiztarrak. Eneko Cidek (15. zenbakiduna) hartu zuen errebote gehien gaztetxoan *mini-kopan*.

SASKIBALOIA

Senior mailako taldeak Lasarte hartuko du zapatuan kiroldegian

Igoera lortzeko aukerarik gabe, bigarren fasean dihardu senior mailako taldeak

E.M.

Bergara KEko senior mailako taldeak Lasarte izango du bisitari bihar, zapatua, kiroldegian, 19:15ean. David Urbinak zuzendutako taldeak ez zuen goiera faserako sailkatzerik eta bigarren faseko hirugarren partidua izango du biharkoa. Zapatuan Aloña Mendiren aurka galdu zuten, 75-73. Hemendik liga amaiera bitartean txapelketa txukuna egitea eta Iñaki Olaetxea, Igor Moracho eta Antxon Hernandez jokalarik gazteei minutuak eskaintzea da Urbinaren asmoa.



Senior mailako taldeak Oñatin galdu zuen zapatuan, 75-73.

KADETE MAILAKO NESKAK, ETXEAN

Bestalde, kadete mailako nesken taldeak Bera-Bera taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, Mariaren Lagundian, 16:00etan. Jokin Perezek zuzendutako taldeak Atletico San Sebastian taldearen aurka galdu zuen, 60-46 emaitzarekin.

BI TALDE ZARAUTZEN

Kadete eta junior mailako mutilen taldeek Zarautzen jokatuko dute bihar, zapatua. Junior mailako Lacor taldeak Beasain taldeari irabazi zion, 55-41, eta dago-

eneko lehen mailarako goiera lortu dute Ramon Conderen mutilek. Mikel Etxeberria eta Gorka Erañaren kadete mailako Araneta taldeak, berriz, Internacional taldearen aurka galdu zuen, 36-101.

ASTELEHENEN GOIENKARIA

Herriko karatekak onenen artean Eskola Kiroleko Txapelketan

E.M.

Aurreko aste bukaeran Eskola Kiroleko Karate Txapelketa jokatzen Eibarren eta Shotokan eta Gizartu taldeetako ordezkariak lehiatu ziren. Alebin mailako katetan, Josu Fernandez Giartzuko ordezkaria lehena izan zen eta infantil mailan, berriz, Jon Riverok hirugarren postua eskuratu zuen.



Irudian, Eibarren lehiatutako Giartzu taldeko karatekak.

Shotokan taldeari dagokionez, Irati Fernandez lehena izan zen benjamin mailan (gerriko zurutik berdera bitarteko artean), Egoi Garcia, Xabier Iñurrieta eta Maialen Goirizelaiaren aurretik. Gerriko laranjatik berdera, Borja Alcantara bigarrena izan zen eta alebin mailan Jone Agirrezabal, Matxalen Zezeaga eta Ekaitz Irazola izan ziren aurreneko hirurak. Alebin mailan, gerriko berdetik bel-

tzera, Haizea Iñarra izan zen lehena eta Mikel Aginagalde eta Jon Urkia hirugarren sailkatu ziren. Azkenik, Deian Kerleta eta Julen

Arana onenak izan ziren infantil mailan, gerriko zurutik berdera eta gerriko berdetik beltzera, hurrenez hurren.

GIARTZU

MENDIA

Baqueirara eta Alpeetara eskiatzera joateko irteerak Pol-Poleko eski sailaren eskutik

Pol-Pol Mendizale Taldeko eski sailak Aste Santuan Alpeetara joateko irteera iragarri du. Hain zuzen ere, Motaret-era (Hiru Haranak) joango dira Pol-Poleko kideak, martxoaren 25etik apirilaren 2ra bitartean. Aste Santuaren aurretik Baqueirara irteera egingo dute Pol-Polekoek, martxoaren 4tik 6ra Baqueirako eski estaziara. Argibideak Pol-Poleko bulegoan edota 943 76 48 51 telefono zenbakian.

TXIRRINDULARITZA

Bizikletaren oinarrizkoak ikasteko ikastaroa martxoaren 11n eta 18an Jardunen eskutik

Bizikletaren oinarrizkoak ikasteko ikastaroa antolatu du Jardunek. Bertan, zuluak nola konpondu, postura egokia nola lortu eta beste hainbat oinarrizko ezagutza emango dira.

Ikastaroa, martxoaren 11n eta 18an, 19.00etatik 21:00etara Arri-zuriagan. Argibideak eta izenematea Jardunen, 943 76 08 19 zenbakian.

TENISA

Tenis txapelketa jokatuko da martxotik aurrera Labegarietako kiroldegiko pistan

Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, tenis txapelketa jokatuko da Labegarietako kiroldegian, martxotik aurrera. Txapelketa Debagieneko zirkuiturako puntuagarria izango da.

Bihar, zapatua, izango da izena emateko azken eguna. Argibideak kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.

ESKUBALOIA

Arrasate eta Bergarako gazte mailako nesken arteko derbia bihar, kiroldegian

Gazte mailan, Bergara eta Arrasateko nesken taldeak aurrez aurre izango dira bihar, zapatua, Labegarietako kiroldegian, 17:30ean. Legazpiri irabazi zion azken jardunaldian, 26-20. Biharkoa izango da aste bukaeran kiroldegian jokatuko den eskubalo partidu bakarra.

LABEGARIAIETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

10:30: Egurre-Belengua Brescia
11:30: Brescia-Bayer Niu Tim
12:30: KMP-Niu Tim Bayer
16:00: Fac-Ganbara Pagome.

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: K.Piperrak-Txipiron Belengua
10:30: Belengua-Canalejas Txipiron
11:30: Pirulotarrak-KMP A Ze Fla.
12:30: Irubide-A Ze Flaxa KMP
16:00: Kalaveras-Niu Tim Errotag.
17:00: Brescia-Errotagain PDS
18:00: PDS-Egurre Agirreb.
19:00: Mongatxurak-Agirrebena SDTNT
20:00: SDTNT-All Blacks Mongatx.

ZAPATUAN, KANPOAN

09:30: Pagomendi-De Resaka Fac

JOXAN


ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45



margolan
m a r g o a k

- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ feng shui estudioak
- ▶ bidriren margolanak
- ▶ Imitazioak

Sagasti auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA-HERNANI
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK
EGUREN
Iraila 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK
JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA
AIERDI AHOLKULARITZA
Artekalea 1. 943 76 03 50
TBG AHOLKULARITZA
Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK
RAFAEL ARANBURU
Irizar 5. 943 76 10 81
BERNARDINO MAIZTEGI
Irizar 5. 943 76 10 81
JUAN ANTONIO SIERRA
Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK
JESUS LASKURAIN PEREZ
Zurradero 4. 943 76 53 53

DANTZA/ Euskal dantzen esparrua indartu nahi dute, azken urteetan behera egin baitu. Martxoaren 2an egitasmoaren berri emango dute

'Bergara Dantzara' egitasmoa ezagutzera emango dute eguaztenean dantza taldeek

MARIA AGIRRE

Xamatx, Moises Azpiazu eta Abarka dantza taldeek bat egin dute euskal dantzei bultzada emateko asmoz, eta Bergara Dantzara izeneko egitasmoa abiatu dute. Horren berri emateko, martxoaren 2an bilera izango da kultura etxean, 19:00etan.

Herriko dantza talde bakoitzak jarraitu egingo du orain arteko lana egiten, baina, dantzari bultzada emateko asmoz, elkarlanean ekimen berria abiarazi nahi dute. Xamatx, Moises Azpiazu eta Abarka taldeek indarrak batu, eta Bergara Dantzara izenez bataiatu duten egitasmoa herrian ezagutzera emango dute.

HERRITARREN LAGUNTZA ESKATU

Bergara Dantzara ekimenarekin, herritarrei laguntza eskatu nahi diete: "Herritarren inplikazioa beharrezkoa dugu; ez bakarrik dantzan aritzen direnena, baita dantzari ez direnena ere. Horregatik, datorren eguaztenean egingo dugun bilerara joateko dei egingo diegu guztiei ere. Euskal dantzek herrian indarra har dezaten,



Xamatx, Moises Azpiazu eta Abarka dantza taldeetako ordezkariak.

guztien laguntza beharrezkoa dugu", adierazi digute taldeetako ordezkariak. Guztiak, gainera, bat datozen Euskal Dantzarien

Biltzarretik ez dutela inolako laguntzarik jasotzen esaterakoan, eta, hori ikusita, herritarrengana jotzea erabaki dute. Baina, era

berean, Bergarako Udalarekin harremanak sendotzeko asmoa dute, eta Udalaren inplikazio handiagoa eskatu. Etorkizunean

Dantza Eskola antolatu nahiko lukete. Horregatik, Musika Eskolarekin ere hartu-emanetan has-tea garrantzitsua litzatekeela ikusten dute.

GERO ETA UME GUTXIAGO DANTZAN

Azken urteetan nabarmen egin du behera dantza ikastera joaten diren umeen kopuruak. Gainera, hasi bai, baina gehienek bizkor uzten dutela esan digute. Era berean, dantzan ikasteko, asmoa duten mutikoen gabezia izugarria dela azpimarratu digute. Gazte-txoek eskolatik kanpo makina bat egin behar izaten badute ere, dantzak bere tokia izan behar duela uste dute. Baina gaztetxoengana ez ezik, nagusiengana ere zuzendu nahi dute, eta ikastaroak antolatu.

Gaur egun makina bat ekitaldi eta dantza erakustaldi antolatzen dituzte herrian dantza taldeek. Auzoetara ere joaten dira dantza erakustaldiak egitera. Hala ere, garai batean indar handiagoa zuten, eta orain, ekimen berriarekin, berriro ere Bergara dantza arloan "erreferente" izatea lortu gura dute. "Lehen, dantzarekiko zaletasuna zegoen herrian, eta ea berreskuratzen dugun".

ELKARRIZKETA

UNAI AZKARATE/MARGOLARIA

"Bukatu gabeko koadroa jarriko dut erakusketan, jendeak buka dezan"

M.A.

Ilusioz, eta gauzak egiteko gogoz topatu dugu Unai Azkarate. Martxoaren 5ean, azkenaldian egindako margolanekin erakusketa jarriko du Nahikarin, baina erakusketa ez da ohikoa izango. Koadroak zintzilikatzen ez da mugatuko.

Zelakoa izango da jarriko duzun erakusketa?

Bukatutako koadro batzuk jarriko ditut, baina zirriborroak ere bai. Gainera, tabernako txoko batean pinturak jendearen eskura jarriko ditut, amaitu gabeko koadro bat jendeak buka dezan. Instalazio txiki bat izango da.

Ezohiko erakusketa.

Bergaran ezohikoa izan daiteke, baina kanpoan izaten dira. Donostian ikusi nuen horrelako bat, bukatu gabeko lanekin, eta ideia hori asko gustatu zitzaidan. Gainera, erakusketaren inaugu-

razio ekitaldian DJ bat izango da, eta pintxoak. Jendea gerturatzeko modu bat izango dela uste dut. Eta, horrela, euren iritzia jakingo dut.

Nahikarikoak beldurrez ote daude pinturak-eta jarriko dituzulako?

Ez, ez. Pozik daude, ikusten dutelako ez ditudala margolanak soilik zintzilikatuko.

Herrian jarriko duzun lehenengo erakusketa izango da?

Pintura lehiaketetan esku hartu izan dut, eta ondoren, lan horiek izan dira ikusgai. Eta 15 urte nituen lagun batekin jarri nuen erakusketa Nahikarin. Baina, bai, bakarka jarriko dudana lehenengo erakusketa izango da Nahikari tabernakoa. Erakusketa hori hasiera bat bezalakoa izango da, hemen-dik aurrera horrelako gauza gehiago egin nahi baitut.

Hainbat esparru lantzen dituen artista zara.

Gaur egun hori egiten dugu Arte Ederrak ikasi ditugun guz-



M.A.

tiok ere. Hau da, inor ez da, esaterako, eskulturara bakarrik zuzentzen. Egungo artista diseinu grafikoan aritzen da, ilustrazioak egiten ditu, margotu, bideo

kamera hartzen du... Nik neuk hainbat esparru lantzen ditut, eta gitarra ere jotzen dut.

Koadroetara itzuliz. Pintura jaurtiketa egiten duzu.

Bai. Koadro baten aurrean jarri, eta pintura jaurtitzen dut, baina ez edozein modutan, eta zati batzuetan bakarrik. Gehienetan azpikoa margotzen dut lehenengo. Batzuek diote horrek ez duela meriturik, baina, badaezpada, hori esaten dutenek ez dute horrelakorik egiten. Beste batzuek, berriz, estetikoki koadroa zelan geratu den gustatzen zaiela esaten didate.

Beraz, hemendik aurrera izango dugu zure berri.

Hala nahi nuke. Orain, galeria bat ari naiz prestatzen herrian. Bertan lan egingo dut, baina erakusketarako tokia ere izango da. Bestalde, maisulanetan ari naiz, eta horrek denbora luzea kentzen dit, baina gaur egun ez dago pinturatik bakarrik bizitzerik, eta hala egin behar!

KULTURAPILULAK

Neubat eta Potemkin taldeak gaur Jam aretoan

Gaur, gaueko 10etan, Neubat eta Potemkin taldeek joko dute Jam aretoan, eta sarre-ra bost euro izango da. Neubat eskarmentu handiko taldea da. Rock eta post-rock estiloak lantzen dituzte. Dantzaaldiko erreginak izeneko diskoa kaleratu zuten iaz. Potemkin taldea, berriz, oñatiaz osatuta dago, eta finalera iritsi ziren Danbaka lehiaketan. Haiek rocka lantzen dute.

Enslaved eta Quiet Riot taldeen txanda bihar eta etzi

Asteburu oparora izango da Jam aretoan. Bihar, arratsaldeko 8etan, Enslaved eta Vreid taldeek eskainiko dute kontzertua. Biak hala biak, Norvegiako taldeak dira, eta metal doinuak lantzen dituzte. Domekan, berriz, Quiet Riot eta Hira taldeen txanda izango da, 19:00ean. Eta Jamekoa izango da Quiet Riot taldeak Estatuan eskainiko duen kontzertu bakarra.



HARMAILATIK

Debagoieneko Kirola Goiena Telebistan



Astelehenetan
21:00ean eta 22:00ean GOITBn

Aurkezlea: Julen Iriondo

E, TXO!

ESKORIATZAKO MUSEORAKO LOGOTIPO LEHIAKETA

Eskoriatzako Ibarraundi jauregian dagoen museoa-
rendako izen eta logotipo
lehiaketa deitu dute.
Martxoaren 8a baino
lehenago aurkeztu behar
dira proposamenak.
Irabazleak 300 euro
jasoko ditu. Informazio
gehiago, Eskoriatzako
Udalaren webgunean
aurkituko duzue.

SEXOLOGIAREN INGURUKO FILM LABURREN LEHIAKETA

Sexmetraia izeneko
lehiaketa kaleratu berri
du Arrasateko Udaleko
Sexologia Zerbitzuak.
Film laburrak aurkeztu
behar dira lehiaketara,
eta gaia sexualitatea da.
Zuzendari bakoitzak
gehienez lan bi eta
edozein hizkuntzatan
aurkezteko aukera izango
du. Sari bi izango dira:
1.500 eta 600 euro. Infor-
mazioa, www.sexologia-zerbitzua.com
helbidean
aurki daiteke.

ATZERRIAN IKASTEKO MAKINA BAT AUKERA

Alemania, Frantzia, Italia
eta Suedian unibertsitate-
ko ikasketak egiteko
aukeraren berri eman du
Madrilgo Goethe Institu-
tuak. Alemanian ikasi
nahi izanez gero,
www.daad.de helbidean
izango dituzue xehetasun
guztiak. Frantzia ikasi
nahi dutenek,
[www.ambafrance.es/mad-
rid/index.htm](http://www.ambafrance.es/madrid/index.htm) webgune-
an. Italiako eskaintzari
dagokiona,
[www.natura.es/iicma-
drid/indexes.html](http://www.natura.es/iicmadrid/indexes.html)
helbidean; eta Suediaren
kasuan,
www.hsv.se/english
webgunean.
Gainontzean, munduko
unibertsitateko guztien
gaineko informazioa
www.braintrack.com
helbidean dago.

GUREGAIK/ UDALAKUETAN ESKU HARTZEKO ESKAINTZA GERTU DU IKASTOLEN ELKARTEAK

Udalekuetan parte hartu edo begirale izan

M.A.

Ikastolen Elkarteak udan hizkuntzaren bat ikasi nahi dutenendako eskaintza zabala kaleratu du. Udan lan egin nahi baduzu, berriz, jakin, elkarte horrek begiraleak kontratatze-ko deialdia kaleratu duela.

Ikastolen Elkarteak antolatutako udalekuetan begirale lanetan aritu nahi dutenek martxoaren 12a baino lehen bidali behar dute eskaria elkarteak Bilbon duen ordezkarietara. Euskarazko udalekuetarako 25 begirale behar dituzte, ingelesez izango direnendako 55, eta frantsesezko udalekuetarako zazpi. Guztira 87 lagun kontratatuko dituzte. Beha-

rrezkoa da 18 urte baino gehiago izan, eta udalekuari dagokion hizkuntza jakitea.

UDALEKUEKUTARAKO AUKERA UGARI

Hizkuntzaren bat ikasi nahi duten gazteendako, bestalde, udalekuak eta atzerriko egonaldiak antolatu ditu Ikastolen Elkarteak. Ingles udalekuak Lekeition, Bermeon, Ondarroan eta Sopelan egingo dira, 10-16 urte bitarteko gazteendako. Frantses udalekuak ere Sopelan, baina 12-16 urte bitartekoendako. Atzerriko egonaldiak, bestalde, 14-18 urte arteko gazteendako prestatu dituzte. Horrez gain, euskaraz izango diren udalekuak ere aukeran izango dira, 12-14 urte bitartekoentzat. Durangon izango dira.



IKASTOLEN ELKARTEA

Begirale lanetan aritzeko 87 gazte kontratatuko dituzte.

LOTSABARIK/ Erika Iturbe

“Etxean inoiz ez dugu telebistarik eduki”

M.A.

Eibarren ari da ikasten Erika, baina aurrez AEBetan, Londren eta Irlandan izan da ikasi edo lan egiten. Orain, Kanpo Merkataritza ari da ikasten, eta horrekin lotutako lan bat aurkitu nahiko luke.

• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?

Gure herriaren itxura hobetuko nuke, orain hankaz gora dago eta. Eta gazteendako ekintza gehiago antolatuko nituzke.

• Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?

Aspaldian ezer ere ez.

• Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Etxean inoiz ez dugu telebistarik eduki; beraz, ezin erantzun.

• Pertsonaia higuingarriena? Eta gustukoena?

Politikariak faltsuak iruditzen zaizkit. Gustukoa, berriz, Toti Martinez de Lezea.

• Zerk amorratzen zaitu?

Gezurak eta faltsukeriak.

• Zer estimatzen duzu besteengan?

Laguntza eskatu, eta laguntzeko gertu egotea.

• Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?

Familiartekoei eta ikasketei.

• Zure bertute bat? Eta akats bat?

Ez naiz batere puntuala. Beti berandu iristen naiz. Bertutea, hobe beste norbaitek esatea.

• Zelan ligatzen duzue gazteok?

Jaietan eta tabernetan.

• Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?

Oso serioa behintzat, ez. Umort-
tsua, eta ederra bada, askoz hobeto.

• Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?

Toki askotara! Hego Ameri-
kara, Australiara, Afrikara...
Lagunekin edo mutil-lagunarekin
joango nintzateke.

• Etorkizunerako amets bat?

Ikasketekin zerikusia duen
lanen bat aurkitzea. Atzerriko
jendearekin harremanetan jarri-
ko nauen lan bat nahi nuke.



ADINA: 22 urte • **IKASKETAK:** Kanpo Merkataritza ikasten ari da • **ZALETASUNAK:** Irakurri eta igeri egin
LIBURU BAT: Toti Martinez de Lezearen *La herbolera* • **FILM BAT:** *Las hermanas de la Magdalena* • **MUSIKA TALDEA:** U2 • **KIROI TALDEA:** Bat ere ez

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze kaletan daude Erdi Aroko kale kantoia eta gandola?

GALDEDEBALDE

1.
Nor da Jaurilaritzako Garraio eta Herrilaneke sailburua?


- A/ Alvaro Amann.
- B/ Fernando Tapia.
- C/ Antxon Jaime.

2.
Non egingo du Bergarako Udalak skate pista berria?

- A/ Matxiategin.
- B/ Labegarietan.
- C/ Fraiskoaurin.

3.
Ze izen du Xamatx, Moises Azpiazu eta Abarkaren egitasmo berriak?

- A/ Jalgi Hadi.
- B/ Bergara Dantzara.
- C/ Arin Arin Bergara.



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JUANITA ALUSTIZArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Juanita! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Lezarri**./ Galde debalde: **1-B, 2-A, 3-C**.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Musa maionesa

450 ml


0,93 €

155 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Orfeoiko kide batzuk 1947an.



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatu

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Lagun koadrila 1959ko Pazkoetan

Egunotan Fraisko zurin jarri duten umeendako barrakak Pazkoetako giroa ekarri digu gogora nolabait. Barrakak izaten dira jaietako ezaugarrietako bat, zalantzarik ez. Hala ere, oraindik nahiko urrun geratzen dira aurtengo Pazkoak, maiatzaren 14tik 17ra bitartean ospatuko dira-eta.

Alboko argazkia 1959ko Pazkoetan aterata dago, eta bertan azaltzen den lagun koadrilak ederki asko igaroko zituen jaiak; aurpegiei erreparatu besterik ez dago horretaz ohartzeko. Hala ere, eguraldia ez dakigu nolakoa izango zuten, argazkiko batek guardasola baitauka esku artean... Edozein modutan, festa giroa ez zuten faltan sumatuko argazkikoek. Barrezka ari dira argazkiko gehienak; argazkilariak ez zuen lan erraza izango guztiak gelditu egon zitezten.

Hauek dituzue argazkian dotore-dotore azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Maria Angeles Lagranja, Jose Antsoalde, Amparito Astiazaran, Moises Manso, Maritxu Gallastegi, Fede Madinabeitia, Maria Eugenia Egaña, Maria Josefa Lagranja, Javier Garamendi, Florita Alberdi, Julito Villarreal eta Roman Lizarralde.

Makurtuta: Tomas Barrena eta Ricardo Otaño.

Argazkia: Florita Alberdi




ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!


ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13



Silvestre Muñoz, s.l.

pinturak

Pintura-lanak
orokorrean

•
Pintura industrial

•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

610 25 99 82

610 25 40 37


943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak

Moketa eta sintasola

Iztuku esponjatua

Paper pintatuak

Harea zorrotada

Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 25a / 234. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Bost urteko epean 147 biztanle eta 175 etxebizitza gehiago ditu herriak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Biztanle kopurua gorantz joan da azken urteetan herrian; azken bost urteetako datuei erreparatuta ikus daiteke 147 biztanle gehiago daudela Antzuolan. Besteak beste, etxebizitza berriak eraikitzeak izan du eragina gorakada horretan, 175 egin baitituzte.

Udaleko datuen arabera 2001. urte hasieran 1.896 biztanle zituen Antzuolak, eta urtean-urtean gorako joera izan du biztanle kopuruak, 2005eko hasieran 2.043 biztanlera iritsi arte. Azken 10 urteotako kopuru altuena. 2.000 biztanleko muga gainditu zuten irailean, eta, bost urteotako datuak kontuan hartuta, 147 lagun gehiago bizi dira herrian.

Biztanle kopuruak gora egitearen arrazoietakoa bat da jendea kanpotik Antzuolara etortzea bizitzera. Bost urteotan 313 lagun etorri dira. Batzuk ingurukoak, Espainiako hainbat txokotakoak besteak, eta Espainiatik kanpoak ere: Pakistan, Errusia, Argentina, Mexiko, Kolombia, Portugal eta Errumaniatik, guztira 19. Kanpotik jende gehien izan zuten, 121, hain zuzen ere.



Urte hasieran 2.043 biztanle zituen Antzuolak; orain dela bost urte baino 147 gehiago.

Bestalde, jaiotzek ere badute eraginik herriko populazioak gora egiteko orduan. Bost urtean 83 ume jaio dira Antzuolan. Jaiotza kopuru altuena 2003an izan zen, 21 ume jaio baitziren; gutxienez, berriz, 2002an, 12 ume.

HERRITIK KANPORA

Populazioaren gorabeherak aztertzerakoan herritik kanpora bizitzera joandakoak ere aipatu behar dira. 215 izan dira guztira bost urteotan joan direnak. Gehien 2002an, 57 antzuolar, hain zuzen.

Jendea herrira bizi izatera etortzeko etxebizitza berriak ere eraiki dira, 175 guztira. Gehien izan, 81 etxebizitza egin baitzituzten. 2001ean, berriz, harrizkekoa bada ere, bederatzi etxebizitza baino ez zituzten eraiki.

ERREPIDEAK

Beheko auzoko bidegurutzean aldaketak

LA

Beheko auzoan bidegurutzea berritzeko asmoa aspaldikoa da. Udala, ordea, ez zetozen bat Foru Aldundiak proposatutako proiektuarekin.

Proiektu horren arabera, Bidegurutzeak ez zuen azelerazio karririk. Beraz, Udalak eskatu du proiektua berriro egiteko.


Izan ere, Lizarragatik datozen ibilgailuek errepide nagusiko bi karririk gurutzatu behar zituzten. Kontuan hartuta bide horretatik beste ibilgailuak abiadura handian datozela, oso arrisku-tsua zen herri barrura edo Zumarragarantz joateko bidera irtetea.

Kamioiendako are arrisku-tsua da maniobra hori egitea; eta Lizarragatik, Elay lantegitik, kamioi handiak irteten dira bidegurutze horretara.

AZELERAZIO KARRILA

Hala, Udaleko ordezkariak Foru Aldundikoei eskatu diete proiektua berriro idazteko. Aldaketa nagusia izango da bidegurutzean 200 metro inguruko azelerazio karrila egitea. Honela, ibilgailuek abiadura hartuko dute errepide nagusian sartu aurretik.

Datak oraindik zehaztu ez badituzte ere, aurreikusitako proiektua berriro idatzi eta urtea amaitu aurretik lanak hastea.



Udalean espero dute bidegurutzeko lanak urtea amaitu aurretik hastea.

LABUR

Masaje ikastaroa martxoetik apirilera bitartean

Masaje ikastaroa izango da martxoaren 3tik apirilaren 28ra. Mendebaldeko eta ekialdeko teknikak landuko dituzte Jose Luis Armendia irakasleak. Eskolak egunenetan izango dira, 19:00etatik 20:30era. Inon emateko udaletxera joan behar da martxoaren 1a baino lehen eta 35 euro ordaindu.

Errekaren proiektua ikusgai udaletxean

Erreka bideratzeko proiektuaren udaletxeko osoko bilkura eta toan ipini dute ikusgai, martxoaren 15era arte egongo da. Astelehenetik ostiralek 10:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 19:00ak arte; zapek, berriz, goizez bakarrik. Planoez gain irudi birtualek eta bideoa ipini dituzte.

Maristen gaineko material bilketa erakusketarako

Martxoaren 12an, 13an, 18an eta 20an Maristei buruzko erakusketak egingo dute. Horietarako, materiala jasotzen dituzte: argazkiak, liburuak, txartelak... Materiala udaletxean eraman behar da martxoaren 4a baino lehen. Erakusketak amaitutakoan jabeari irailiko zaizkio utzitakoak.

Karlistaden gaineko hitzaldia Olan Etxean

Erretiratuen Elkarteak antolatuta hitzaldia izango da martxoaren 3an, Olan Etxean 18:30ean. Juan Madariagatik antolatutako erakusketak karlistadaren foruen abolizioari buruzkoak egingo du. Antolatzaileek herriarrak gonbidatu dituzte gai honek Euzko Herriaren historian izan duen garrantziarengatik.

HIRIGINTZA

Sinadura bilketa asteburuan, plaza gorrian etxeak eraikitzearen kontra

I.A.
Hainbat antzuolar ez datoz bat Udalak Beheko Auzoko plaza gorrian etxeak egiteko duen proiektuarekin. Hori dela eta, asteburuan sinadura bilketa egingo dute Kalebarrenean, euren ezadostasuna herritarren babespean Udalarri helarazteko.

Udalak Beheko Auzoko plaza gorrian 50 etxebizitza egin nahi ditu, eta ekipamendu batzuk Sagasti aldera eraman. Hainbat antzuolarren esanetan, "proiektu horrek Beheko Auzoari, Eguzki Auzoari eta Sagastiri eragingo die, eta, orokorrean, herri osoari".

Hori dela eta, euren kexa azaldu zuten, baina "Udalak ez du interesik azaldu auzokoekin hitz egiteko", esan dute. Herritarren partaidetza beharrezkoa dela gaineratu dute: "Gure hitza entzunda edozein aldaketa adostasun maila handiarekin egin ahal izateko. Kalitatezko herria, bizi-baldintza egokienak eta benetako partaidetza demokratikoa ditugu jokoan".



Gaur egun jolaserako erabiltzen den plaza gorrian egin nahi dituzte etxeak.

Udalaren jokaerarekin desadostasuna azaldu eta jarrera alda dezala eskatu nahi duten herritarrei euren sinadura emateko

eskatu diete. Sinadurak biltzeko Kalebarrenean mahaiak ipiniko dituzte otsailaren 26an iluntzean eta 27an eguerdian.

GARRAIOAK

Autobusez egingo dute lotura tranbiarekin

I.A.
Oraindik tranbia errepidean ikusterako denbora luzea pasa beharko da. Baina Bergararik Aretxabaletara bitarteko ibilbidearen proiektua paperean ikus daiteke. Jendaurrean ipini dute Arrasateko, Bergarako eta Aretxabaletako udaletxeetan.

Tranbia ez da Antzuolatik igaroko. Hala ere, proiektuak aurreikusten du Antzuolatik trenbide-

arekin lotura egingo duten autobusak ipintzea.

BERGARAKO GELTOKIRA

Antzuolatik gertuen egongo den Bergarako geltokira joango dira herritik irtendako autobusak, eta bueltarako ere bertan hartu ahal izango dira.

Autobus zerbitzua zein konpainiak eskainiko duen zehazteke dago oraindik. Baina baliteke Euskotrenek hartzea bere gain.



Begarakoa izango da Antzuolatik gertuen geratuko den tranbiaren geltokia.

HERRITARREN HITZA / Iñigo Ramirez de Okariz · Kultura, Kirol, Gazte eta Hezkuntza zinegotzia

Haur Eskola martxan dago

Familiaren egitura aldatzearen ondorioak nahiz kulturen artekoasuna praktikan, hemen daude, urrutira joan gabe, Antzuolan, eta bereziki inauguratu berri dugun Haur Eskola honetan.

Herrigintza barruan, eta herritarrei oinarritzko zerbitzuak eskaini nahian, lehentasu bezala hartu zuen gure udalbatzak Haur Eskola sortzea. Diziplinen artekoasunean egina dagoen proiektua da berau; izan ere, diseinuan eragile ezberdinek hartu dute parte: psikologoak, pedagogoak, irakasleak, gurasoak... Baita arkitektoak, aparejadoreak...

eta politikoak ere. Sujerentziak, kezak, arazoak, denek ekarpenak aberasgarriak izan dira, Haur Eskolaren espazioa eta hornikuntzaren forma eta erabilera eztabaidatzeko.

Beraz, ez dugu "umeak aparkatzeko" gune bat sortu nahi izan, baizik eta txiki-txikitatik gure seme-alabak hasiak diren bizikidetzarako eta gizarteratzeko hazi-gunea sortu nahi izan dugu. Hau da, gune



"Haur Eskola hau ez zen posible izango jende kompetentea hurbil ez balitz"

integratzaile bat, eta aldi berean hezkuntza sistemarekin ere bat egiten duena; izan ere, herriko ikastetxearekin bat eginda dago.

Baina Haur Eskola hau ez zen posible izango jende kompetentea ez balitz hurbil. Aipamen berezia eta eskerrak eman nahi dizkiot Juanjo Kintelari, psikologo, pedagogo eta maisutasunez eta ilusioz, paregabeko bidelagunari.

Baina baita, nola ez, ikastetxeko

irakasle, guraso, Partzuergo, Kutxa eta Goizperri ere.

Dena den, baserritar batek uztan on bat jasotzeko egiten duen bezala, lurra ondo goldatu eta hazia erein besterik ez dugu egin. Hemendik aurrera jakin ahal izango dugu hazi hori nola ernalditu eta uzta ematen duen. Beraz, gure lana, hemendik aurrera, baserritar horrek egingo lukeen bezala, egunez egun jorraketa on bat egitea izango litzateke, datozen urteetako uztak onak izan daitezten.

Eskerririk asko, ba, zuzen edota zeharka, proiektu hau gauzatzeko laguntza eskaini duzuen guztioi.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Otsailak 26
11:30: Antzuola-Urki (Neskak)
15:30: Antzuola-Oiartzun B (Gazteak)

PILOTA

Otsailak 26
17:00: Olalde-Eibar (Kadeteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Zestoa B 2 Antzuola 0 (2. erregionala)
Gure Txokoa 1 Antzuola 2 (2. gazteak)
Antzuola 3 Urki C 2 (2. kadeteak)
Antzuola 5 Vasconia 2 (Infantilak)
Almen Arizmendi 3 Antzuola 5 (Neskak)

PILOTA

Bergara-Olalde (Kadeteak eskuz) 4-22
Aretxabaleta-Olalde (Nagusiak eskuz) 22-13
Olalde-Real Sociedad (Pala motza) 40-22

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI
taberna jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

Juan Cruz
ARGAZKIAK
Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak
Estudioko argazkiak
BITXITEGIA
Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak
Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko otsailaren 25a / 217. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Txabolen gaineko datuak jasotzen dabil Udala

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udala herrian eta inguruetan dauden txabolen gaineko ikerketa egiten dabil. Datuak jasotzerakoan ikusi dute hainbat txabolak ez dituztela betetzen udal ordenantzek eskatutako baldintzak. Beraz, erabaki egin beharko dute zein neurri hartu gai horretan.

Elgeta eta inguruetan gutxi gora-behera 22 txabola daude. Txabola horien gaineko datuak jaso ditu Udalak, ikusteko zein egoeratan dauden. Bide batez, aztertu dute ea txabolen gaineko ordenantzak esaten dutena betetzen duten.

Oraingoz, hamar txabolaren datuak jaso dituzte fitxetan. Besteak beste, aztertu dute non dagoen, lursailak zenbateko hedadura duen, txabolak zenbat neurtzen duen, txabola egiteko baimena zeinek eskatu duen eta baita txabola zertarako erabiltzen den ere.

LANABESAK GORDETZEKO

Ordenantzaren arabera txabolak ezin ditu 15 metro koadro baino gehiago izan. Era berean, nekazaritzako lanabesak gordetzeko baino ezin izango dira erabili.



GOIBEKOKALE

Txabolek ezin dute 15 metro koadro baino gehiago izan ordenantzen arabera.

Datuak jasotzerakoan, ordea, ikusi dute txabola gehienek ez dituztela baldintzak betetzen. Batzuetan animaliak ere gordetzen dituzte. Beste batzuk, berriz,

txoko modura erabiltzen dira eta neurria ez dute errespetatzen.

Hala, erabaki behar dute txabolei buruzko ordenantza aldatzea edo beste neurri batzuk hartzea.

KULTURA

Bertso saioa eta Big Banda Espaloian

I.A.

Gaur, barikua, bertso saioa izango da Espaloian Udalak antolatuta. 22:30ean hasiko da saioa eta Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Unai Agirre eta Estitxu Arozena bertsolariak jardungo dute bertsoetan Unai Elizasu gai jartzaileraren esanetara.

Bestalde, zapatuan Arrasate Musikaleko Big Bandaren emanaldia izango da 22:30ean. Zigor Martinezen zuzendaritzapean 20 musikari arituko dira.

PIEZA MODERNOAK

Arrasate Musikaleko ikasleak eta irakasleek osatzen dute talde bost saxofoi, lau tronboi, trompeta, hiru gitarra, piano, bateria eta abeslari bat izango dira taula gainean.

Guztira 12 pieza joko dituzte modernoak denak. Musika esklusibo asko entzuteko aukera eskaintzen duen programa berririk niko dute, gainera: bluesa, jazz, bossa nova, rocka...

Bergaran izandako arratsatearen ostean Elgetan ere martxoaren 31ra bitartean jardutea da euren as...



Arrasate Musikaleko Big Banda eskolako 20 musikarik osatzen dute.

HERRITARREN HITZA / Alberto Telleria • Administrazioko langilea

Hau, hori, ura

Askotan berba asko eta ekintza gutxi izan arren, sinistu egiten dot erakunde publikoak antolatutako programetan. Adibidez, Tokiko Agenda 21ian, udalagintariak sustatutako eta garatutako Ingurumeneko Ekintza Planian, "udalerrriaren etengabe ingurumen-hobekuntzaren bidean jarduteko konpromisoa" hartzen dabelako eta helburua. "udalerririko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea" dalako.

Sinisten dot zientzian, eta erakunde publikoak emoten dituen datu zientifikuetan. Orduan, sinistu egin bihar Aixolako

urak kalitate ona dakala.

Baiña zientzian eta erakundietan sinisten badot, sinistu egin bihar Elgetako Udalak enpresa bati eskatutako txostenian. Bertan, ondorixoa moduan agertzen da, isuri industrialak egon badagozela eta ez daguela horren gaineko kontrolrik. Eta ezaguna da

ikerketa horrek dakarren beste puntu bat: poligonoko enpresak batek saniamentuak egiterako-



"Sarri ikusi izan dot Aixola errekan holako bits misterioitsu bat"

an nahastu, eta ur-beltzak eta euri-urak bat egin, eta hondakin-urak Aixola errekan doiazela.

Ni neu ez naiz zientzialarixa, baiña sinistu egiten dot nere begixen aurrian ikusten dotena eta sarri ikusi izan dot Aixola errekan, Lehenengo errekin eta Bigarren-

kin bat egin aurretik, holako bits misterioitsu bat, edo beste batzutan ur likiña. Ziur nago

Ubegin ez dala jaixotzen holako bitsik eta urik.

Sinistu egiten dot horrek urok Aixolako presara ailegatu orduko, Lehenengo errekiak; Bigarrenak; Hirugarrenak eta, gehixenbat, Txuloko errekiak garbitzen dittuela. Eta urak analisatzeko lagiñak Urbedeinketun hartzen direla.

Baiña sinistu be sinistu egiten dot oin dala 10-12 urte amorrainak Aixola errekan gora, ixa kaleraño igotzen ebela. Gaur da eguna hain goixan amorrain bat ikusteko, bat bera falta dala. Zientzialari ez gazenondako hori baiño datu hoberik?

LABUR

Pello Alberdiren erakusketa Gasteizen

Pello Alberdi Elgetako pelloaren margolanak ikusgai izango dira martxoaren 31ra bitartean Gasteizen. Cercas Bajas kaleko 10. zenbakian dagoen Pello sa Navarro arte galerian ikusgai niko ditu olioiz mihiase gaineko egindako hiri-paisaiak. Martxoaren 31ra bitartean martxoaren 31ra arte egongo da zabalik. Arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara ikusgai izango dira Alberdi koadroak, asteleheneratik martxoaren 31ra bitartean.

ELKARRIZKETA

ANTONIO IRISARRI/ARGAZKILARIA

“Nire argazkiak politak dira, baina ez kalitatezkoak”

I.A.

Lizarrakoa izatez, Eibarrren bizi da Antonio Irisarri. Parkinson gaitzari aurre egiteko argazkilaritzan barneratzen da buru-belarri, eta bere lanak Espaloian ipini ditu ikusgai. Martxoaren 3ra arte egongo da erakusketa bertan.

Nola hasi zinen argazkilaritzan?

Ezerezetik hasi nintzen argazkiak ateratzen, lehen semea jaio zenean; 47 urte ditu hark, eta nik oraindik jarraitu egiten dut.

Zein teknika lantzen duzu?

Tontoen teknika deitzen diot nik; begiratzen ikasi eta botoia sakatu. Eginaren eginez ikasi dut eta ikastaro batzuetan ere hartu dut parte; Agirresarobe anaiekin edo Gipuzkoako Argazkilarien Elkartean, esaterako. Lehen, zuri-beltzean egiten nituen argazkiak, baina gaixotu nintzenean laborategian bakarrik lan egiteak erreparoa ematen zidan.

Azkenaldian ordenagailuarekin egiten duzu lan, ezta?

Bai, eskaneatutako edo kamera digitalarekin ateratako argaz-

kiak manipulatu ditut. Argazkilaritzaz askorik ulertzen ez dutenendako argazki politak dira nireak, baina kalitatez ez dira horren onak.

Zure gaixotasunari aurre egiteko terapia modura erabiltzen duzu argazkilaritza.

Parkinsona dut, eta argazkilaritzan jardungo ez banu erabat tontatuko nintzateke. Ezinegona sartzen zaidanean ordenagailu aurrean jarri eta argazkiekin jolasen jarduten dut. Erretiratuta egon arren, hori da nire lana, gustuko dudana, gainera.

Hau ez da egin duzun lehen erakusketa.

Orain hiru erakusketa egin ditut bata bestearen jarraian: Eibarren, Lizarran eta Elgetan.

“Parkinsona dut, eta argazkilaritzan jardungo ez banu erabat tontatuko nintzateke”

Ezagutzen nauten lekuetatik deitzen didate, eta horregatik ausartzen naiz. Izan ere, nire argazkiak adituendako ez dira onak; politak bai, baina onak ez.

Zer ikusiko du Espaloiko erakusketara joaten denak?


Askotariko argazkiak zintzilikatu ditut Espaloian. Bai zuri-beltzean eta baita koloreetan ere. Gai bakarrek erakusketak ikusleak aspertzen dutela uste dut. Beraz, ikusleekin pentsatuz euren gustatzeko moduko erakusketa prestatu dut. Bidaletako, Eibarreko eta Lizarrako argazkiak daude, besteak beste. Aretoa egokia da, eta elgetarrak nire lanak ikustera gonbidatu nahi nituzke.

Zeri ateratzen dizkiozu argazkiak?

Edozeri, irudi bat lapurtzen uzten didan orori. Erretratuak eta biluziak gustuko ditut, baina ez ditut horren ongi ateratzen.

Zein proiektu duzu aurrera begira?

Bizitza eta gauzak egiten jarraitzea. Izan ere, gaixotasuna dela medio, gauzak egiteko gai naizen artean nire buruari erakusten diot bizi naizela.



A.I.A.

UDALA

EAJ-EAko zinegotziek gezurtatu egin dituzte Aralarren salaketak

I.A.

Aralar alderdiak orain dela gutxi egindako adierazpenak gezurtatu egin ditu EAJ-EAko zinegotzi taldeak. Eta bide batez eskatu diete Aralarkoei euren aurka esandakoak publikoki zuzentzeko.

Elgetako Udaleko EAJ-EAko zinegotzi taldeak prentsa ohar baten bidez gezurtatu egin ditu Elgetako Aralarrek orain dela gutxi egindako adierazpenak. “Lege-

aldi honetan ohikoa gertatzen ari den bezala, gehiegikeriaz, zuri-keriaz eta sentsazionalismoz egindako adierazpenak izan dira”, euren esanetan.

Hala, herritarrak “lasaitu” egin nahi dituzte zera esanez: “Legealdi honetarako onartutako konpromiso guztiak aurrera doaz: industrialdea handitzea, Espaloia, eguneko zentroa, etxebizitza berriak, saihebidetza... Gure herriko ongizatearen alde lanean jarraituko dugu dagokigun seriotasunez eta zorrotasunez”.

Bestalde, atsekabea azaldu dute “Udalan elkarlana baino iskanbila nahiago duten ordezkari politiko batzuekin batera egoteagatik”.

Idatzi horretan diote aspertuta daudela “euren jarrera arduragabe eta kaltegarriarekin”. Beraz, Aralarrek egindako salaketei erantzun zehatz eta publikoa emango diete. “Talde politiko horri behingoz bere harrokeria alboratu eta egin dituen adierazpenak zuzentzea besterik ez diogu eskatzen”, esan dute.

LABUR

Domekako erreferendumean 271 elgetarrek ezetz esan zioten itunari

Espero moduan, Europako Itunaren galdeketa ez zuen arrakasta handirik izan domekan. Barne Ministerioko datuen arabera, Elgetan aukera izan arren 474 lagun ez ziren bozkatzera joan. Absentzia, beraz, %55 izan zen. Bozkatu zutenen artean ezezkoa izan zen nagusi; 271 ezezko boto jašo ziren Elgetako hauteskunde-mahaian; baiezkoak 108 boto izan ziren, eta zuriak sei.

Korrika 14ko kilometroak erosteko jaia egingo dute zapatuan gaztetxean

Elgeta Auzolanian plataformak, Elgetako Euskal Herriaren Euskarazek, Esna Adik eta gaztetxeak Korrikako kilometro bat erosi nahi dute elkarren artean. Horretarako dirua lortzeko jaia antolatu dute. Jaia zapatuan izango da. 20:00etan triki-bertsu poteoa egingo dute gaztetxetik abiatuta; 22:00ak aldera pintxoak, ogitar-tekoak eta edaria ipiniko dituzte salgai gaztetxean; eta ondoren, 23:00etan kontzertua izango da Skye eta Triki taldeekin.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale

943 76 92 71

ILE APAINDEGIEN GIDA

SONIA ETA JUAN /SANCHEZ ILE APAINDEGIKOAK

‘Labanaz mozten zuen lehen ile apaintzailea izan nintzen Bergaran’

Zenbat urte daramatzazu gizonezkoak orrazten ?

Ni —Juan Sanchez— 11 urterekin hasi nintzen ilea mozten, Avilan. Dena dela, 9 urte nituela bizarra ere mozten nuen. Bergaran, orain dela 42 urte zabaldu nuen Sanchez ile apaindegia, lehenengo Zubieta kalean eta gero Fraiskozuri plazan. Labanaz mozten zuen lehen ile apaintzailea izan nintzen Bergaran. Sonia, alaba, orain dela 11 urte hasi zen nirekin lanean; harena hirugarren belaunaldia da.

Moda jarraitzaileak zarate?

Gure ofizioan ezinbestekoa da moda jarraitzea; dena dela, orain kirolariak dira gazteen artean moda markatzen dutenak. Bezero askok Beckhåmen, Yesteren eta Goñiren orrazkerak egiteko eskatzen digute. Gure ustez gizonezkoetan hiru etapa egoten dira: umetan ile motza amak horrela esaten duelako, gaztetan luzea norberak aukeratzen duelako, eta nagusitzean berriro ere motza. Erabiltzen ditugun markak hauek dira: RC, Montibelo eta L'Oréal. Gipuzkoako gizonezkoen ile apaindegien elkarteko kideak gara. Normalean ni —Sonia— Donostiara joaten naiz elkarteak antolatzen dituen ikastaroetara. Galak ikustera, berriz, Madril edo Bartzelonara joaten naiz.

Zer-nolako bezeroak dituzu?

Jaioberrietatik hasi eta nagusietara arte. Ez da berdina neskei ilea moztea edo mutilei ilea moztea, ez da teknika bera.

Jendea ausarta da?

Jende gaztea geroz eta ausartagoa da. Nagusiak, berriz, betikoa egitera etortzen dira, klasikoagoak dira. Azkenaldian moda kontua gizonezkoen gauza ere bada.

Jendeak zaintzen du ilea?

Ilean arazorik ez dutenean ez dira larregi ardura-zen ilea zaintzeaz. Arazoren bat dutenean, berriz, lehenak dira gomendatutako xanpuarekin garbitzen. Geroz eta arazo gehiago dituzte gaur egungo umeek



Sonia eta Juan, aita-alabak

buru-azalean. Guk hau gomendatzen dugu: ilea umetatik xanpu onarekin garbitzea. Bezero batzuei medikuarengana joatea ere gomendatzen diegu.

Aholkuak ematen dituzu?

Bai, normalean egindako orrazkera nola eraman dezaketen esaten diet. Baita nola zaindu ere.

Zer da gehien eramatea dena? Eta zer egiten duzu gehien?

Gehien eramatea dena ile motza da. Geroz eta gehiago eskatzen didate kolorea eta metxak egitea. Azken tendentzia, berriz, orraztu gabeko itxura ematen duen orrazkera eramatea da. Ilea puntetan neurri desberdinetara moztuta.

Bezeroek lagatzen dizute nahi duzuna egiten ala ideia garbiekin etortzen dira?

Denetarik bezeroak ditugu. Nagusiek normalean betikoa eskatzen digute. Gazteak dira gauza berriak egitera gehiago ausartzen direnak. Aholkua eskatzen digute orrazkera berrien inguruan. Gazteen artean ideia finkoekin etortzen direnak ere badaude.

Ile apaindegia bakarrik ala beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzue?

Ile mozteaz aparte, bizarra ere mozten dugu. Bizarra ezkontzetan eta egun berezietan mozten dugu gehienbat.



Fraiskozuri 4 • Bergara • 943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Klasikoa/moderno
- Bizartegia
- Kolorea

Aukera onenak

ADATS

Herri lagunak 4 - Bergara
943 76 49 51

- Solarium bertikala
- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua



Boni Laskurain 2 - Bergara
943 76 43 07

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kérastase tratamenduak
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

BEROTZI

PELUQUERAS

D. Fleming 5 - Bergara
943 76 53 15

- Sebastian promozio bereziak
- Trucco makillajea
- Londres eta New Yorkeko azken tendentziak
- Schwarzkopf kolorea

disdira

ile apaindegia

Masterreka 7 - Bergara
943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Azken joerak koloreetan

IDOIA

Espoloia 4 - Bergara
943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruazal garbitzea
- Solariuma

ileak

Ozaeta 3 - Bergara
943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

IZARRA

San Pedro 23 - Bergara
943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutxarekin

KIZKUR

Bolu 51 - Bergara
943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

ORRASKI

San Pedro 6 - Bergara
943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma



Ibargarai 42 - Bergara
943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutxarekin

Pepelu

Zurradero 2 - Bergara
943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea